



BERDINTASUN TEKNIKARIA

GAITEGI ESPEZIFIKOKO GALDERAK



1 EUROPAR BATASUNAREN 2016/679 ERREGELAMENDUAK, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ PERTSONA FISIKOEN BABESARI ETA DATU HORIEN ZIRKULAZIO ASKEARI BURUZKO ARAUAK EZARTZEN DITUENAK, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAK JARRAITU BEHARREKO PRINTZIOAK EZARTZEN DITU. HORIEN ARTEAN, ERREGELAMENDUAK HONAKO HAUEK AIPATZEN DITU:

- 1a) Legezatasuna, leialtasuna eta gardentasuna; helburua mugatzea; datuak minimizatzea; zehaztasuna; eta kontserbatzeko epea mugatzea, besteak beste.
- 1b) Ziurtasuna eta gardentasuna; datuak bidezko eta beharrezko datuetara mugatzea; kontserbatzeko epea mugatzea; eta interes teknikoa, soziala edo enpresariala, besteak beste.
- 1c) Zehaztasuna eta ziurtasuna; informazio-hedadura; gardentasuna eta erantzukizun proaktiboa, besteak beste.
- 1d) Helburua mugatzea; datuak gordetzen dituztenen zuzentasuna eta gardentasuna; eta interes teknikoa, soziala edo enpresariala, besteak beste.

2 ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO URRIAREN 19KO 11/2016 FORU ARAUAK 7. ARTIKULUAN EZARTZEN DUENEZ, DIRULAGUNTZAK KUDEATZEKO PRINTZIO OROKORRAK:

- 2a) Publizitatea, gardentasuna, lehia, berdintasuna eta diskriminazio eza dira.
- 2b) Publizitatea; gardentasuna; lehia; objektibotasuna; diskriminazio eza; efikazia ezarritako helburuak betetzean; eta efizientzia baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean dira.
- 2c) Publizitatea; gardentasuna; lehia; berdintasuna eta diskriminazio eza; efikazia ezarritako helburuak betetzean; eta efizientzia baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean, bai eta beste lege batek ezarritako gainerakoak ere.
- 2d) Honako hauek izango dira: publizitatea; gardentasuna; lehia; objektibotasuna; berdintasuna eta diskriminazio eza; efikazia ezarritako helburuak betetzean; eta efizientzia baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean. Halaber, 7. artikulua ezartzen du dirulaguntzek, hala dagokienean, sexuen arteko aukera berdintasuna sustatzeko medioak eman beharko dituztela, desberdintasunak ezabatuz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz.

3 9/2017 LEGEA, AZAROAREN 8KOA, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUENA-N JASOTZEN DIREN SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATU MOTAK HAUEK DIRA:

- 3a) Obra-kontratua; obra-emakidakoa; zerbitzu-emakidakoa; hornidurakoa; zerbitzutakoa; eta mistoa.
- 3b) Obra-kontratua, emakida-kontratua, banaketa-kontratua, zerbitzu-kontratua eta kontratu mistoa.
- 3c) Obra-emakidako kontratua, banaketakoa, emakidakoa, mistoa eta enkarguzkoa.
- 3d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.



4 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN XEDEARI DAGOKIONEZ:

- 4a) Legearen xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, eta euskal administrazio publikoei bakarrik aplikatzen zaie.
- 4b) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan jarduteko printzipio orokorrak ezartzen ditu, eta EAEko administrazio publikorako zenbait neurri arautzen ditu, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna eta tratu-berdintasuna sustatzeko, bizitzako esparru guztietan, baina, bereziki, eremu publikoan.
- 4c) Azken helburua berdintasunezko eta indarkeria matxistarik gabeko gizartea lortzea da.
- 4d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

5 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, AUKERA BERDINTASUNERAKO PLAN ESTRATEGIKOA:

- 5a) Aldizka Gobernuak eta Diputatuen Kongresuak onartu behar dute.
- 5b) Gobernuak aldizka onartu behar du, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun helburua lortzeko eta sexuagatiko diskriminazioa ezabatzeko neurriak jasoko ditu.
- 5c) Aldizka Gobernuak, Diputatuen Kongresuak eta Espainiako Defensor del Pueblo erakundeak onartu behar dute, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun helburua lortzeko eta sexuagatiko diskriminazioa ezabatzeko neurriak jasoko ditu.
- 5d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

6 3/2018 LEGE ORGANIKOAK, ABENDUAREN 5EKOAK, DATU PERTSONALAK BABESTEKO ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEKOAK DATUEN BABESAREN HAINBAT ALDERDI ARAUTZEN DITU. ALDERDI HORIEK LEGEAREN TITULUETAN ISLATZEN DIRA. HONAKO IZENBURU HAUEK AURKITU DITZAKEGU, BESTEAK BESTE:

- 6a) Datuak babesteko printzipioak; datuak tratatzen dituzten erakundeen eskubideak; datuak babesteko agintaritzak; besteak beste.
- 6b) Datuak babesteko printzipioak; pertsonen eskubideak; zehapen-araubidea; besteak beste.
- 6c) Eskubide digitalen bermea; datuak tratatzen dituzten erakundeen eskubideak; datuak tratatzeko prozedurak; besteak beste.
- 6d) Eskubide digitalen bermea; Datuak Babesteko Espainiako Agentzia; zehapen-araubidea; besteak beste.

7 ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO URRIAREN 19KO 11/2016 FORU ARAUA:



- 7a) Foru Administrazioari lotuta edo haren mende dauden eta nortasun juridiko propioa duten zuzenbide publikoko erakundeek eta gainerako entitateek emandako dirulaguntzei aplika dakieke (ematen dituzten dirulaguntzak administrazio-botereak erabiltzearen ondorio badira).
- 7b) Ez zaie kuadrillei aplikatzen, nahiz eta foru arau honetan jasotakoa kontuan hartzen den Arabako Lurralde Historikoko kuadrillen dirulaguntzak eratzeko.
- 7c) Arabako Foru Aldundiari, erakunde autonomoei eta foru-partzuergoei aplika dakieke.
- 7d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

8 SEKTORE PUBLIKOAREN KONTRATAZIOAK HAINBAT PRINTZPIO BETE BEHAR DITU. BESTEAK BESTE:

- 8a) Informazioa eskuratzeko askatasunaren printzipioa.
- 8b) Prozeduren gardentasunaren printzipioa.
- 8c) Ez errebotatzeko printzipioa.
- 8d) Optimizazio-printzipioa.

9 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEA APLIKATUKO ZAIE:

- 9a) Euskal administrazio publiko guztiei, salbuespenik gabe.
- 9b) Euskal administrazio publiko guztiei, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde pribatuei eta euskal unibertsitate-sistemari.
- 9c) Euskal administrazio publiko guztiei, legeak ezartzen dituen salbuespenekin.
- 9d) Euskal administrazio publiko guztiei, legeak ezartzen dituen salbuespenekin, bai eta legearen aplikazio-eremuari buruzko 2. artikuluan ezartzen diren gainerakoei ere.

10 BOTERE PUBLIKOEN EGINDAKO IZENDAPENEN DAGOKIENEZ, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOAK HONAKO HAU EZARTZEN DU:

- 10a) Botere publikoak erantzukizuneko karguen izendapenetan emakumeen eta gizonen presentzia paritarioaren printzipioa betetzen saiatuko dira, eta parekotasuna ezinezkoa denean, presentzia orekatuaren printzipioa betetzen saiatuko dira.
- 10b) Botere publikoak ahaleginduko dira erantzukizuneko karguen izendapenetan emakumeen eta gizonen presentzia paritarioaren printzipioa betetzen.
- 10c) Botere publikoak ahaleginduko dira erantzukizuneko karguen izendapenetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa betetzen.
- 10d) Botere publikoek erantzukizuneko karguen izendapenetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa betetzen saiatuko dira, eta presentzia orekatutzat joko da sexuetako baten ordezkapena gutxienez % 30 –koa izatea.



11 EUROPAR BATASUNAREN 2016/679 ERREGELAMENDUAREN ARABERA, (DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ PERTSONA FISIKOEN BABESARI ETA DATU HORIEN ZIRKULAZIO ASKEARI BURUZKO ARAUAK EZARTZEN DITUENAK), INTERESDUNAK ESKUBIDEA DU TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK EGIAZTA DEZAN BERARI BURUZKO DATU PERTSONALAK TRATATZEN ARI DIREN ALA EZ:

- 11a) Bai, pertsona horrek ez badu baimenik eman bere datuak tratatzeko; izan ere, erregelamendua indarrean jarri aurretik eman zituelako bere datuak, eta pertsona fisikoen datu pertsonalak tratatzeko legezko mugarik ez zegoen oraindik.
- 11b) Bai, eta horrek eskubidea ematen dio bere datuak eta bestelako informazioa eskuratzeko, adibidez, tratamenduaren helburuen informazioa jasotzeko.
- 11c) Ez dago halako eskubiderik orokorrean, baina eskubide hori egikaritzea eskatu ahal izango da erregelamenduak zehazten dituen kasuetan, hala nola datuak egiaztatzeko beharra dagoenean, besteak beste.
- 11d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

12 DIRULAGUNTZA BATEN ONURADUN IZATEKO:

- 12a) Dirulaguntza ematea oinarritzen duen egoeran ez daudenek eskuratu ahal izango dute, hori justifikatuz gero.
- 12b) Baliteke indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea, baina 20 eguneko epea izango dute betebeharrak horiek betetzeko.
- 12c) Ezin dute genero-bereizkeria edo sexu-orientazioko diskriminazioa egin izanagatik administrazio edo zigor-zehapenik jaso izan.
- 12d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

13 KONTRATAZIO PUBLIKOAN, IRIZPIDE SOZIAL ETA INGURUMENEKOEI DAGOKIENEZ, 9/2017 LEGEAREN ARABERA, AZAROAREN 8KOA, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUENA:

- 13a) Kontratazio publikoan sartuko dira, kontratazio horretan eskumena duen administrazioari buruzko lege edo araudi batek hala ezartzen duenean bakarrik.
- 13b) Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean, sinetsita haiek sartzeak kalitatea-prezioa erlazio hobea emango duela kontratu-prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran.
- 13c) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako irizpideak sartuko dira, ahal den guztietan eta kontratazio publikoaren oinarrietan eta dagokion lurralde-araudian hala ezarrita dagoenean bakarrik.
- 13d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.



14 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEA EUSKAL BOTERE PUBLIKOEI APLIKATUKO ZAIE:

- 14a) Zehazki, euskal botere publikoei aplikatzen zaizkie legearen 3. artikuluan jasotzen diren printzipio orokorrak eta legean zehar aipatzen diren beste printzipio orokor batzuk (2. artikuluan, aplikazio-eremuari buruzkoa, zehazten direnak artikulua, hain zuzen ere).
- 14b) Legearentzat, Eusko Jaurlaritzaz ez ezik, Eusko Legebiltzarra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia ere botere publikoak dira.
- 14c) Legearentzat, Eusko Legebiltzarra sartzen du botere publiko gisa, baina lurralde historikoetako Batzar Nagusiak kanpoan uzten ditu.
- 14d) Euskal botere publikoei 3. artikuluan jasotako printzipio orokorrak bakarrik aplikatuko zaizkie.

15 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOAK BOTERE PUBLIKOEN JARDUTEKO IRIZPIDE OROKOR BATZUK EZARTZEN DITU, BESTEAK BESTE:

- 15a) Ekonomia, lan, gizarte, kultura eta arte politika guztietan tratatu eta aukera-berdintasun printzipioa txertatzea; genero-indarkeria, familia-indarkeria eta sexu-jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpen mota guztiak desagerrarazteko beharrezko neurriak hartzea; eta politika publikoetan interseksionalitate printzipioa txertatzea.
- 15b) Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua hauteskunde-hautagaitzetan eta erabakiak hartzean; eta lankidetzaz tresnak sustatzea administrazio publikoan eta gizarte-eragilean, emakume-elkartean eta beste erakunde pribatu batzuen artean.
- 15c) Kalteberatasun bereziko kolektiboetako emakumeek dituzten zailtasun bereziak kontuan hartzea; eta emakumeak eremu publikoan eta pribatuan ahaldunduz.
- 15d) Publizitate-eremuan hizkera ez-sexista ezartzea; eta amatasuna eta aitatasuna babestea.

16 3/2018 LEGE ORGANIKOAK, ABENDUAREN 5EKOAK, DATU PERTSONALAK BABESTEKO ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEKOAK, JASOTZEN DITUEN DATUAK BABESTEKO PRINTZIBIOEN ARTEAN, HONAKO HAUEK DAUDE, 4. ARTIKULUTIK 10. ARTIKULURA BITARTEAN:

- 16a) Datuen zehaztasuna.
- 16b) Datuak ezabatze bide behar (ekintza judizialaren bidez eskatzen bada).
- 16c) Datuen gardentasuna.
- 16d) Datuen ziurtasuna eta erabilgarritasuna.

17 DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDUREI DAGOKIENEZ, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO URRIAREN 19KO 11/2016 FORU ARAUAK HONAKO HAU EZARTZEN DU:



- 17a) Dirulaguntzak prozedura arruntaren bidez emango dira beti, lehiarik gabeko konkurrentzia erregimenean.
- 17b) Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta lehiako konkurrentzia erregimenean egingo da.
- 17c) Salbuespenez, eskumena duen organoak hala erabakitzen badu, lehia askekoa izan daiteke dirulanguntza emateko prozedura.
- 17d) Ez da dirulanguntza zuzenean emateko aukerarik ezartzen.

18 ADMINISTRAZIO-KONTRATUAK DIRA:

- 18a) Obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak, hornidura-kontratuak eta zerbitzu-kontratuak, baldin eta administrazio publiko batek egiten baditu.
- 18b) Lege batek berariaz hala deklaraturako kontratuak.
- 18c) Objektutat aldizkarietako, aldizkako argitalpenetako eta datu-baseetako harpidetza daukatenak.
- 18d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

19 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAK HONAKO PRINTZPIO OROKORRAK EZARTZEN DITU:

- 19a) Tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta diferentzia errespetatzea; ordezkarien paritarioa eta pertsonen ahalduntzea, besteak beste.
- 19b) Tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta diferentzia errespetatzea; ordezkarien orekatua eta emakumeen ahalduntzea, besteak beste.
- 19c) Gobernu ona, indarkeria matxistari gabe bizitzak eraikitzea; ekonomiak eta zaintzen gizarte-antolamendua eraldatzea eta emakumeen ahalduntzea.
- 19d) Tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta diferentzia errespetatzea; ordezkarien paritarioa eta emakumeen ahalduntzea, besteak beste.

20 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOAK, TOKI-ERAKUNDE ETA -KORPORAZIOEI DAGOKIENEZ:

- 20a) Ez dira toki-erakundeak aipatzen, izan ere, legeak Estatu mailako botere publikoen emakumeen eta gizonen berdintasuna arloko ekintzak arautzen ditu.
- 20b) Ez dira toki-erakundeak aipatzen, erakunde horien emakumeen eta gizonen berdintasun arloko ekintzak gai horri buruzko lege autonomikoetan xedatutakoaren arabera arautu behar direlako.



- 20c) Toki-erakundeak aipatzen dira, ezartzen duenean toki-erakundeek berdintasun-
eskubidea integratuko dutela beren eskumenak gauzatzean, eta, horretarako,
lankidetzan jardungo dutela gainerako herri-administrazioekin.
- 20d) Toki-korporazioak aipatzen dira, ezartzen duenean toki-korporazioek beren
Berdintasun eta Aniztasun-planak ezarri ahal izango dituztela, bai eta hiriko denbora
antolatzeke udal-planak ere.

**21 DATU PERTSONALEN ARDURADUNEK ETA TRATAMENDU-ERAGILEEK EGIN
BEHAR DUTE, 3/2018 LEGE ORGANIKOAK, ABENDUAREN 5EKOAK, DATU
PERTSONALAK BABESTEKO ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEKOAK
EZARTZEN DUENAREN ARABERA:**

- 21a) Datuak blokeatu, horiek zuzendu edo ezabatu behar direnean.
- 21b) Tratamendu-jardueren erregistro bat egitea.
- 21c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 21d) Erantzun guztiak okerrak dira.

**22 ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO URRIAREN
19KO 11/2016 FORU ARAUAK BALDINTZA BATZUK EZARTZEN DITU
ONURADUNEK DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK AZPIKONTRATATZEKO:**

- 22a) Bai, ezartzen du inola ere ezingo direla azpikontratatu jarduerak zeinak, diruz
lagundutako jardueren kostuak handitzen dituzten eta jardueren edukiari balio erantsia
ematen ez dioten.
- 22b) Bai, eta bakarrik jarduera partzialki azpikontratatzeko aukera ematen du,
dirulaguntzaren araudiak hala aurreikusten duenean.
- 22c) Ez da egia, Foru Arauak ez du inguruabar edo aukera hori aurreikusten edo arautzen.
- 22d) Bai, ezartzen du onuradunak hirugarrenekin azpikontratatzeko duen diruz lagundutako
jarduerak ez duela gaitzuko diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko
25.

**23 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATU GISA EGITEN
DITUZTEN KONTRATUAK FORMALIZATZEARI DAGOKIONEZ:**

- 23a) Erantzun hauetako bat ere ez da zuzena.
- 23b) Administrazio publikoek egiten dituzten kontratuak administrazio-agiri batean
formalizatu beharko dira. Agiri hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie, estu-estu, eta
nahikoa titulu emango du edozein erregistro publikotan sartzeko.
- 23c) Fede publikoa emateko eskumena duten notario edo funtzionarioen aurrean
formalizatu beharko dira.
- 23d) Kontratazio-oinarrietan ezarritako baldintzetara egokitzen den administrazio-agiri
baten bidez formalizatu beharko dira, betiere horiei erantsitako formalizazio-plantillari
jarraituz.



24 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAK EZARTZEN DUEN ESKUMEN-BANAKETAREN ARABERA:

- 24a) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagokie legeak egiteko eta arauak garatzeko eskumena; emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko zuzeneko ekintza, berriz, lurralde historikoetako foru-organoei eta toki-administrazioari dagokie.
- 24b) Lurralde historikoetako foru-organoei eta toki-administrazioari dagokie emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko legegintza-eskumena, arauak garatzeko eskumena eta zuzeneko ekintza.
- 24c) Euskal Autonomia Erkidegoko osorako erakundeek zuzeneko ekintzak abiarazi baditzakete ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak betearaztea lurralde historikoetako foru-organoei eta tokiko administrazioari dagokie, lege horretan eta hura garatzeko araudian ezarritakoarekin bat.
- 24d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

25 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOAK HONAKO HAUEK ARAUTZEN DITU:

- 25a) Enpresen berdintasun-planak eta berdintasuna sustatzeko beste neurri batzuk.
- 25b) Berdintasunaren arloko empresa bereizgarria.
- 25c) Tratu eta aukera berdintasuna lan-eremuan.
- 25d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

26 EUROPAR BATASUNAREN 2016/679 ERREGELAMENDUAK, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ PERTSONA FISIKOEN BABESARI ETA DATU HORIEN ZIRKULAZIO ASKEARI BURUZKO ARAUAK EZARTZEN DITUENAK, HELBURU HAUEK DITU:

- 26a) Europar Batasunean datu pertsonalak babesteari buruzko oinarrizko eta aukerako arau-esparrua ematea (Estatuari dagokion araudia onartu arte).
- 26b) c) eta d) erantzunak zuzenak dira.
- 26c) Pertsona fisikoaren oinarrizko eskubide eta askatasunak babestea, bereziki datu pertsonalak babesteko eskubidea.
- 26d) Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko arauak eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzea.

27 DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURAREN EBAZPENEA:

- 27a) Gehienez ere sei hilabeteko epean egin behar da, lege-mailako arau batek edo foru-arau batek epe luzeagoa ezartzen duenean edo Europar Batasuneko araudian hala aurreikusita dagoenean izan ezik.



- 27b) Ebazpen-proposamena instrukzio-organoak egingo du, administrazio-prozedura orokorra arautzen duen oinarrizko legediak eta dagokion arauan edo deialdian aurreikusitakoaren arabera.
- 27c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 27d) Gehienez ere sei hilabeteko epean egin behar da, kasu guztietan.

28 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EGITEN DITUZTEN SEKTORE PUBLIKOEN KONTRATUAK FORMALIZATZEKO IRAGARKIARI DAGOKIONEZ, HAINBAT BALDINTZA ETA EPE EZARTZEN DIRA. 9/2017 LEGEAREN ARABERA, AZAROAREN 8KOAK, SEKTORE PUBLIKOEN KONTRATUENAK, HONAKO HAU EZARTZEN DU:

- 28a) Oro har, kontratuen formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, hamabost eguneko epea baino lehen argitaratu beharko da, kontratua burutu ondoren, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean.
- 28b) Kasu guztietarako, kontratuen formalizazioa dagokion kontratuarekin batera argitaratu beharko da, kontratua burutu eta hilabeteko epean gehienez ere, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean.
- 28c) Oro har, kontratuen formalizazioa dagokion kontratuarekin batera argitaratu beharko da, kontratua burutu eta hilabeteko epean gehienez ere, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean.
- 28d) Kontratuak formalizatzeko epeak aldatu egiten dira zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak edo kontratu mistoak badira. Gainerakoetarako, hamabost eguneko epea ezartzen da, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean kontratua burutu ondoren.

29 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAK HONAKO HAU EZARTZEN DU AURREKONTUEN ARLOAN 15. ARTIKULUAN:

- 29a) EAEko administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dutela beren aurrekontu publikoetan.
- 29b) EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dutela beren aurrekontu publikoetan, Emakundek justifikatu ezean.
- 29c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak aktiboki eta progresiboki sustatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren % 1,5, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzera bideratzea.
- 29d) Erantzun guztiak okerrak dira.

30 JOKABIDE DISKRIMINATZAILEEN ONDORIO JURIDIKOEI DAGOKIENEZ, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINKORRERAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA:



- 30a) Ondorio juridikoak negozio juridikoen egintza eta klausulen deuseztasuna eta efektu eza izango dira, baldin eta egintza eta klausula horiek sexuagatiko bereizkeria badakarte edo eragiten badute.
- 30b) Sexuagatiko bereizkeria dakarten edo eragiten duten negozio juridikoen egintzek eta klausulek erantzukizuna sorraraziko dute, jasandako kaltearen araberrako erreparazio edo kalte-sistema erreal, eraginkor eta proportzionatu baten bidez.
- 30c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 30d) Ez du zehapen-sistematik ezartzeko aukerarik aurreikusten.

31 3/2018 LEGE ORGANIKOAK, ABENDUAREN 5EKOAK, DATU PERTSONALAK BABESTEKO ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEKOAK, BIDEOZAINZARAKO DATUEN TRATAMENDUEI EGITEN DIE ERREFERENTZIA, ETA HONAKO HAU EZARTZEN DU:

- 31a) Pertsona fisiko edo juridikoek, publiko edo pribatuak, irudien tratamendua egin ahal dute kamera edo bideokamera sistemen bidez, pertsonen eta ondasunen segurtasuna gordetzeko, bai eta haien instalazioena ere.
- 31b) Irudiak kameran edo bideokameran sistemen bidez tratatu ahal izango dira, pertsonen, ondasunen eta instalazioen segurtasuna zaintzeko, betiere dagokion administrazio-baimena lortzen bada.
- 31c) Arau orokor gisa, ezin izango dira irudiak kameran edo bideokameran sistemen bidez tratatu, pertsonen, ondasunen eta horien instalazioen segurtasuna zaintzeko. Horretarako, kamera- edo bideokamera-sistemen instalazioa justifikatu behar da, Lege Organikoan bertan arautzen den prozedura espezifiko baten bidez.
- 31d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

32 ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO URRIAREN 19KO 11/2016 FORU ARAUA(K):

- 32a) Gizartearen beharrianak asetzera du xede, eta, horrekin batera, beraren bitartez funts publikoen kudeaketa erraztu nahi zaio foru sektore publiko osoari, betiere interes orokorra eta dirulaguntzetarako baliabideen kudeaketa eraginkorra eta efizientea bermatuz.
- 32b) 2. artikuluan aipatzen diren entitateek ematen dituzten dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzea du xede. Entitate horiek Arabako Foru Aldundia, foru erakunde autonomoak eta foru partzuergoak dira, besteak beste.
- 32c) Foru Arauak aipatutako subjektuetariko edozeinek pertsona pribatu zein publikoen alde dirua baliatzea hartuko da dirulaguntzatzat, baldin eta 3. artikuluan ezartzen diren betekizunak betetzen badira.
- 32d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

33 OBRA-EMAKIDAKO KONTRATUAK DIRA:



- 33a) Kontratu bat da non haren indarrez botere adjudikatzailer batek edo batzuek kostu bidez adjudikatzen baitiete pertsona bati edo batzuei, naturalak zein juridikoak izan, zerbitzu bat –botere adjudikatzailer horien titulartasunekoak edo eskumenekoak– kudea dezaten, haren ordaina izanik edo kontratuaren objektua diren zerbitzuak ustiatzeko eskubidea, edo eskubide hori izatea eta harekin batera prezio bat jasotzea.
- 33b) Xede hauek dituztenak: obra bat egitea, bereizirik edo proiektuaren idazketarekin batera; edo, sektore publikoko erakunde kontratatzaile batek finkatutako baldintzak betetzen dituen obra bat egitea, edozein bidez, baldin eta obra horrek eragin erabakigarria badu obraren motan edo proiektuan.
- 33c) Kontratu honen bidez, emakidadunak prestazioetako batzuk emango ditu –adibidez, obra bat egitea-, lehendik ziren eraikuntzak berriztatzea eta konpontzea barne, bai eta eraikitako elementuak kontserbatzea eta mantentzea ere bideratzen direnak. Emakidadunaren aldeko kontraprestazioa obra ustiatzeko eskubidea izaten da, ez besterik, edo eskubide hori izatekoa eta prezioa jasotzekoa.
- 33d) Obra-emakidako kontratua da produktu edo ondasun higigarriak eskuratzea, finantza-errentamenduan hartzea edo erosteko aukerarekin zein gabe errentan hartzea objektutzat duena.

34 BERDINTASUN PLANAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN ARABERA:

- 34a) Nahitaezkoak dira Eusko Jaurlaritzarentzat eta foru-aldundientzat, baina ez da ezer esaten udaletako berdintasun planei buruz.
- 34b) Udalek berdintasunerako planak onartu behar dituzte, baina Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren esku-hartze ildo eta gidalerroei jarraikiz.
- 34c) Planetan aurreikusten diren neurriak modu eraginkorrean eta koordinatuan gauzatzen direla bermatu behar da. Neurri horiek, udalen kasuan, banaka edo kide diren mankomunitate, kuadrilla edo taldeen bidez egin ahal izango dira.
- 34d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

35 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOAK BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-EKINTZA ARAUTZEN DU HONAKO GAI HAUETAN:

- 35a) Berdintasun printzipioa hezkuntza-politikan txertatzea.
- 35b) Berdintasuna sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualaren esparruan.
- 35c) Kirolak.
- 35d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

36 EUROPAR BATASUNAREN 2016/679 ERREGELAMENDUAK, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ PERTSONA FISIKOEN BABESARI ETA DATU HORIEN ZIRKULAZIO ASKEARI BURUZKO ARAUAK EZARTZEN DITUENAK, JASOTZEN DUEN DATUAK TRANSFERITZEKO ESKUBIDEA HONELA DEFINITZEN DA:



- 36a) Kontratua edo suskripzioa aldatzeko eskubidea, baina horregatik zigor ekonomikoa jasotzeko aukerarekin.
- 36b) Kontratua edo suskripzioa aldatzeko eskubidea, horregatik zigor ekonomikorik jaso gabe.
- 36c) Datuak transferitzeko eskubideak esan nahi du interesdunak eskubidea izango duela tratamendu-arduradun bati helarazi dizkion datu pertsonalak erabilera orokorra eta irakurketa mekanikoa duen formatu egituratu batean jasotzeko, bai eta beste tratamendu-arduradun bati bidaltzeko ere, datuak jaso dituen arduradunak oztoporik jarri gabe.
- 36d) Arduradun bati edo beste tratamendu-eragile bati emandako datu pertsonal berberak edo antzekoak errepikatzeke edo emateko eskubidea.

37 ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO URRIAREN 19KO 11/2016 FORU ARAUAK, LAGUNTZA EMATEKO EBAZPENA BALIOGABETZEKO HAINBAT ARRAZOI EZARTZEN DITU. HORIEN ARTEAN DAUDE:

- 37a) Kreditu-nahikotasuna, aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren arabera.
- 37b) Administrazio prozedura erkidea arautzen duen oinarritzko araudian adierazitakoak.
- 37c) Foru Arauak ez ditu aipatzen emakida-ebazpenaren deuseztasun kausak, deuseztagarritasun kausak baino ez ditu aipatzen.
- 37d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

38 KONTRATUKO ALDERDIEI DAGOKIENEZ, 9/2017 LEGEAK, AZAROAREN 8KOAK, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUENAK, HONAKO HAUEK AIPATZEN DITU NAGUSIKI:

- 38a) Kontratazio-organoak, kide anitzekoak bakarrik.
- 38b) Pertsona bakarreko edo kide anitzeko kontratazio-organoak; eta enpresaburak, Espainiako edo atzerriko pertsona fisiko edo juridiko gisa, enpresaburuaren elkarteak barne.
- 38c) Kontratazio-organoak eta enpresaburuak, baina azken horien elkarteak sartu gabe.
- 38d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

39 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAK HAINBAT KOORDINAZIO-ORGANO EZARTZEN DITU, BESTEAK BESTE, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEARTEKO BATZORDEA:

- 39a) Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta foru-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politikak eta programak koordinatzeko organoa da.



- 39b) Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta foru- eta toki-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politikak eta programak koordinatzeko organoa da.
- 39c) Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko zuzendaria da batzordeburua.
- 39d) Batzordean Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak eta botere judiziala daude ordezkaturak, neurri bereberetan.

40 LAN-ESPARRUAN TRATU ETA AUKERA-BERDINTASUNA DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOAK ARAUTUTAKO ALDERDIETAKO BAT. EREMU HORRETARAKO, HONAKO HAUEK AIPATZEN DITU BEREZIKI:

- 40a) Emakumeen eta gizonen enplegarritasun-programak sortzea.
- 40b) Negoziazio kolektiboan berdintasuna sustatzea.
- 40c) Enplegu-politikan interseksionalitatearen ikuspegia txertatzea, sexuaz edo generoz gain kontuan har daitezkeen emakumeen talde desberdinen enplegarritasunari eragiten dioten gainerako diskriminazio-faktoreak.
- 40d) Emakumeak lehentasunez kontratatzeko betebeharra.

41 3/2018 LEGE ORGANIKOAK, ABENDUAREN 5EKOAK, DATU PERTSONALAK BABESTEKO ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEKOAK, DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIA ARAUTZEN DU:

- 41a) Bai, araubide juridikoari, ekonomia-, aurrekontu- eta langile-araubideari dagokienez, besteak beste.
- 41b) Bai, arautzen du, baina ez ditu berariaz aipatzen datuak babesteko agintaritzak autonomikoak. Horregatik, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak ez du kontuan hartzen Estatuko 3/2018 Lege Organikoa.
- 41c) Ez, soilik aipatzen du, baina ez ditu haren funtzioak, araubideak, ahalmenak eta gainerako alderdiak arautzen, dagokion erregelamenduan araututa baitaude.
- 41d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

42 ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO URRIAREN 19KO 11/2016 FORU ARAUAN, DIRULAGUNTZA BAT ITZULTZEKO AUKERA EZARTZEN DA. HORRETARAKO, ITZULKETA-PROZEDURARI JARRAITU BEHAR ZAIO. PROZEDURA HORRETAN:

- 42a) Interesdunak entzunak izateko duen eskubidea bermatu behar da beti.
- 42b) Interesdunak entzunak izateko duen eskubidea bermatu behar da, ahal den neurrian.
- 42c) Prozesuaren gardentasuna eta azkartasuna bermatu behar dira.
- 42d) Bermatu egin behar da itzulketa-prozeduraren ebazpena espresuki jakinarazteko eskubidea.



**43 9/2017 LEGEAN, AZAROAREN 8KOA, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN-
EAN, KONTRATISTA EDO ERAKUNDE JAKIN BATZUEKIN KONTRATATZEKO
DEBEKUA AIPATZEN DA, HORIEK HONAKO EGOERA BATETAN BADAUDE:**

- 43a) Zehapen irmo bat jaso izan badute arau-hauste astuna egiteagatik lanbide-arloan (integritatea zalantzan jartzeko moduan), merkatuko diziplina-arloan, lehia faltsutzearen arloan, laneko integrazioaren arloan eta aukera-berdintasunaren arloan eta desgaitasuna duten pertsonen edo atzerritarren diskriminaziorik ezaren arloan, araudi indardunean ezarritakoari jarraituz; besteak beste.
- 43b) Epai irmo bidez kondena jaso izan badute honako delitu hauengatik: terrorismoa; antolakunde edo talde kriminal bat eratu edo integratzea; zilegi ez den elkartzea; alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketa; gizakien salerosketa; negozioetako ustelkeria; influentzia-trafikoa; funtzionario-eroskeria; iruzurrak; Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak; besteak beste.
- 43c) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaera egin izan badute, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaraturia izanak badira, besteak beste.
- 43d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**44 EUSKAL BOTERE PUBLIKOETAKO LANGILEEK EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUN ARLOAN GAITUTA EGON BEHAR DUTE, EMAKUMEEN ETA
GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN ARABERA. HORRETARAKO,
BOTERE PUBLIKOEK:**

- 44a) Genero-ikuspegia txertatu behar dute berariaz emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa ez den prestakuntzan, eta, horretarako, prestakuntza-eskaintzak aztertuko dituzte, eta dagozkion egokitzapenak egingo dituzte.
- 44b) Berdintasun-teknikariei eta gizarte-langileei emakume eta gizonen berdintasun eta genero-ikuspegi arloan oinarrizko prestakuntza mailakaturik, iraunkorra eta nahitaezkoa emateko beharrezko neurriak hartu behar dituzte.
- 44c) Emakumeen eta gizonen berdintasun arloan prestakuntzarako, legeak ezartzen duen betebeharra ez da kargu publikoetara hedatzen, eta, horregatik, legeak euskal administrazio publikoetako langileak edota funtzionarioak baino ez ditu aipatzen.
- 44d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**45 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ESKUBIDEAREN BENETAKO
BABES JUDIZIALAK HONAKO HAU DAKAR, EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE
ORGANIKOAREN ARABERA:**

- 45a) Eskubide horren defentsari buruzko prozesu zibiletan, prozesu sozialetan eta administrazioarekiko auzien prozesuetan esku hartzeko gaitasuna eta legitimazioa interes legitimoa duten pertsona fisikoei dagokie.



- 45b) Espainiako edozein pertsonak auzitegiei emakumeen eta gizonen berdintasun eskubidearen babesa eskatu dezake.
- 45c) Edozein pertsonak auzitegiei emakumeen eta gizonen berdintasun eskubidearen babesa eskatu dezake.
- 45d) Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko auzietan, jazarpena jasan duen pertsona eta haren senideak izango dira legitimazioa duten bakarrak, salbuespenik gabe.

46 EUOPAR BATASUNAREN 2016/679 ERREGELAMENDUAK, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ PERTSONA FISIKOEN BABESARI ETA DATU HORIEN ZIRKULAZIO ASKEARI BURUZKO ARAUAK EZARTZEN DITUENAK, BERARIAZ ARAUTZEN DITU DATU PERTSONALEKIN LOTUTAKO ZENBAIT ESKUBIDE, HALA NOLA:

- 46a) Zuzentzeko eskubidea.
- 46b) Ezerezteko eskubidea edo ahaztua izateko eskubidea.
- 46c) Tratamendua mugatzeko eskubidea.
- 46d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

47 ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO URRIAREN 19KO 11/2016 FORU ARAUAK EZARTZEN DUENEZ, DIRULAGUNTZEN FINANTZA-KONTROLA EGIN BEHAR DA. KONTROL HORREN HELBURUA HONAKO ALDERDI HAUEK EGIAZTATZEA DA:

- 47a) Onuradunak dirulaguntza modu egoki eta zuzenean lortzen duela.
- 47b) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntzaren kudeaketan eta aplikazioan dituzten betebeharrak betetzen dutela.
- 47c) Onuradunen eta erakunde laguntzaileen eskutik aurkeztutako justifikazioaren arabera, dirulaguntzarekin finantzatu diren eragiketen errealitatea eta erregularutasuna egiaztatzea.
- 47d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

48 ENPRESABURUAK SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DUEN GAITASUNARI DAGOKIONEZ, KONTUAN HARTU BEHAR DA:

- 48a) Erregulazio harmonizatukoak ez diren diruz lagundutako kontratuetan, kontratistak bere kaudimena egiaztatu beharko du, eta ezingo du izan legeak aipatzen dituen kontratatzeke debekuetako bat ere.
- 48b) c) eta d) erantzunak zuzenak dira.
- 48c) Aplikatzekoa den araudiak hala ezartzen duenean, kontratistari zenbait baldintza eskatu ahal izango zaizkio, hala nola bere antolaketari, etekinen xedeari, finantzaketa-sistemari edo bestelakoei buruz, kasuko adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko, lizitatzailak egiaztatu egin beharko du betetzen dituela, lehiatu ahal izateko.



48d) Gomendagarria da, nahitaezkoa ez bada ere, kontratuaren objektua diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izatea.

49 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAN JASOTZEN DEN EKINTZA POSITIBOA:

49a) 2. artikuluan ezarritako printzipio orokorretako bat da.

49b) Honela definitzen du: neurri espezifikoak eta aldi baterakoak, bizitzaren eremuetan sexuan oinarritutako egitatezko desberdinkeriak desagerrarazteko edo murrizteko egiten direnak.

49c) Pertsonen sexuan oinarritutako bereizkeria oro debekatzen du, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein dela ere horretarako erabilitako modua.

49d) Legeak bereizi gabe erabiltzen ditu "ekintza positiboa" eta "diskriminazio positiboa" esamoldeak.

50 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOAN BERARIAZ AIPATZEN DA HONAKO EREMU HAUETARAKO EKINTZA POSITIBOA:

50a) Negoziatio kolektiboan.

50b) Emakumeen sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualean.

50c) Adimen artifizialean.

50d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.